

ARGITAN-EN BEGIAK

Barakaldoko Emakumeentzako Aholku Etxea, indarkeria matxistaren behatoki

 **JENDARTEA** / Nerea GOTI

Hogei urte asko dira, eta urteek ez dituzte soilik buruak zuriz tindatzen, barrenak edukiz eta esperimentiaz ere betetzen dituzte. Argitan zentroaren kasuan, milaka emakumeren bizipenez bete da urte luze bezain biziotan. Feminismoan errota-tako herri ekimenak sostengatzen duen zentroak esku artean dituen datuen arabera, sei mila emakume baino gehiago artatu dituzte azken hogeitortan.

Zenbitezina da, hala ere, trantze oso delikatueta eskainitako laguntza zenbat emakumeren aterpe izan den. Non entzungo zieten emakume horiei Argitanen ez bazen? Non erakutsi diete zeintzuk diren bideak, zeintzuk eskubideak? Aholkularitza lana estrategikoa izanik, Barakaldoko bulego txikian, laguntza, enpatia, ulertuak izateko aukera aurkitu dute guztiek, eta izugarri eskertzen den mikroklima bat, epaitua ez izatearen giro epe-la. «Hemen plano berdinean gaude datorren emakumea eta gu, eta hori ez da beti gertatzen», azaldu du Karmele Andres zentroan lan egiten duen emakumeetako batek. Beste asko ere badira, guztiak boluntarioak.

Argitan, berez, ez da babes zerbitzu bat izan. Zehazten dutenez, asmoa beti izan da aholkua ematea, egoera bati edo besteari aurre egiteko bideak erakustea, emakumei dituzten eskubideak jakinaraztea. Informazio hori eskuetan emakumeek beraiek zer egin nahi zuten era autonomoan erabakitzea izan da beti helburua, emakumeak bidea egiteko ahalduntzea.

Azaroaren 25a eta beste egun asko ezagutu ditu Argitan Barakaldoko Emakumeentzako Aholku Etxeak. Bertan indarkeriaren aurpegi guztiak ezagutu dituzten milaka emakumeri esan diete zer eskatzeko eskubidea duten, laguntza nola jaso dezaketen. Eta bidegabekeria bakoitzarekin kalera irten dira eskubideak aldarrikatzeko.

Gauzak horrela, Argitanen mahaitik indarkeria matxistaren aurpegi guztiak pasatu dira. Urteekin egoerak aldatu dira, baina ez egoeron erroak. Egun, «indarkeria ekonomikoa» dago nagusien artean, «zerikusi handia duena instituzioekin eta lan munduarekin, Lanbideak emakumeak tra-

tatzeko duen moduarekin, praktika txarrekin... Hori ere bada indarkeria».

Muturrean, diotenez, indarkeria matxista dago, eta, muturreko indarkeria horren testuinguruan, azken boladan azaltzen ari diren haurren aurkako indarkeria kasuek kezka eragiten dute Argitanen. «Pre-

bentzio lan handia egin behar da, eskolatik bertatik hasita, guraso elkarteekin, kultur etxeekin...».

Beste nabardura bat egiten dute behatoki horretatik ikusten duten eszenaren deskribapenean; indarkeria basatia erraz ikusten da, mundu guztiak aitortu eta salatzen du, baina indarkeriak aurpegi asko ditu, batzuk ez hain agerikoak. Salaketa faltsuen mamuaz ere datu bat aipatzen dute: «Fiskaltzak onartu du 2016an ez zela salaketa faltsurik egon». Hizketaldian Irunen lotuta agertutako emakumearen kasua azaleratu da. «Emakume horren bizitzan arakatzuz gero, ia seguru arazoaren zati bat generokoa, sexista dela», nabarmendu dute.

Kasu askotan, diotenez, eraso bat salatzeko mobilizazioa

Argitan Emakumeentzako Aholku Etxeak sexu eraso bat salatzeko deitutako elkarretaratzea.
Luis JAUREGIALTZO | ARGAZKI PRESS



deitzea asko kostatzen da ger-
tatutakoa zehatz-mehatz jakin
arte. «Baina, zer jakin behar da
emakume bati goizaldean era-
so egin badiote?», planteatzen
dute.

Itzul gaitezen denboran 21
urte atzera, jaiotzearen zen-
troaren kontzepzio unera, ga-
raiko testuingurua ezagutze-
ko. Garai hartan Barakaldon
hainbat emakume talde zeu-
den, baita sindikatu eta alder-
di politikoetako emakumeen
adarretako kideekin osatutako
koordinakunde bat. Zehazki,
Herri Batasuna, Ezker Batua,
CCOO eta LABeko kideak eta
Ilargia emakume taldekoak zi-
ren nagusi koordinakundean.
«Baliabide falta salatzen ge-
nuen, eta indarkeria matxista-
ren aurkako neurrien beharra
aldarrikatzen genuen. Une
hartan hasi ginen ikusten oso

**«Bizkaiko Baliabideen Maparen berri badugu,
baina, gero, hemen, emakumeen benetako
errealitatea ikusten dugu. Praktikak esaten
digu non eragin behar den, zer behar den...»**

**«Autoestimua tailer bat egiten dugu. Etxean zein
lan munduan gure eskubideak defenditzeko
jarraibide eta trebezia horiek altxor bat dira.
Emakume langile asko oso umiliatuta daude»**

garrantzitsua zela Diputazioa-
ren finantziazioarekin udale-
txean sortu zen informazio
puntua», gogoratu dute.

Puntu hartan abokatu femi-
nista bat eta administrari bat
aritzen ziren. Zerbitzua hiru
urtez izan zen martxan,
1986tik 1989ra, emakumeen
arazo espezifikoak artatzea
helburu. Kontuan hartu behar
da, garai hartan, Dibortzioaren

Legea indarrean sartzearekin
batera, egoera berriak sortu zi-
rela, ordura arte ematen ez zi-
ren errealitate eta beharrak.
«Garai hartako emakumeek
bazuten ziri moduko bat guz-
tiz iltzatuta: 'nire senarrak ez
dit utziko, seme-alabak kendu-
ko dizkit'... Lege eta eskubide
berriei frankismotik zeto-
zen egoera horiek agertzen ha-
si ziren, ordura arte emakume-

Urteroko azterketa
ginekologikoen desagertzea
salatzeko Argitanek 2005ean
deitutako mobilizazioetako bat.
Luis JAUREGIALTZO | ARGAZKI PRESS

ek ez zuten-eta inolako babe-
sik», azaldu duten.

Udaletxean jarritako infor-
mazio puntu hori 1989an ken-
du zutenean, zerbitzua berres-
kuratzearen aldeko borroka
abiatu zuen emakumeen koor-
dinakundeak, herri ekimenak
berak informazio puntu bat
sortzea erabaki zuen arte. Ko-
ordinakundean bertan aboka-
tuak, psikologoak... zeuden,
eta hortik abiatuta urrats bat
emateko aukera ikusi zuten.
Puntu Integral izena jarri zio-
ten laguntza juridikoa eta psi-
kologikoa emateko guneari.
Laguntza juridikoaren beharra
argia zen, kasu gehienetan
emakumeek ez baitzuten la-
guntza psikologiko edo medi-
kurik behar, baizik eta orienta-
zioa. «Matxismoa hain zen
indartsua 60 urtetik gorako
emakumeen belaunaldi horie-
tan... Erabakitzeak eskubidea
bazutela ikustean, askotan 20
eta 25 urtez etxean bertan tra-
tu txarrak jaso ondoren, izu-
garria izan zela erantzuna. Ar-
gi ikusi genuen informazio
puntua oso garrantzitsua zela
egoera horiei irtenbidea ema-
teko», gogoratu dute.

Lehenengo gune hori auzo
elkarte batek utzitako lokalean
zabaldu zuten 1996an, eta be-
rehala jaio zen herri ekimenak
kudeatutako zentroa, Argitan
izen propioarekin. «Politikoki
'Babelgo dorre' bat gara, baina
politika egin egiten dugu», dio
Karmelek. Nabarmentzen due-
nez, ideia politiko askotako
emakumeak daude Argitanen,
guztiak feministak.

Hasieratik argi zuten zentro-
ak salaketa puntu bat izan be-
har zuela. Baina ez ziren sala-
keta hutsean geratu, praktikan
jarri zuten Administrazioa
egiteko gai izen ez zena.
«Arreta ematen dugu arreta
falta salatzeko, eta hori hogei



urtez mantendu dugu. Baina jarraitzen dugu esaten Administrazioak egin beharko lukeela hau guztia, nahiz eta horma gogor baten kontra jo», planteatzen dute.

Batzuetan euria hezurretaraino bertaraino sartzen da. Bada, horrelako zerbait gertatu da Argitanekin hainbatetan, adibidez urteetan antolatu izan duen autodefentsa feministako ikastaroarekin. Azaroaren 25eko Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Egunaren kariatara antolatu ohi zuten tailerra orain Barakaldoko Udalak antolatzen du, auziaren inguruan zeozer gehiago egin zezakeela uste badute ere Argitaneko kideek.

Argitanen bi arreta mota eskaintzen dituzte, aholkularitza juridikoa eta psikologikoa. Herri mugimenduko kide diren profesionalak arduratzen dira bi zerbitzuez; arreta orduak euren artean banatu, norberaren bizitza antolatu eta mahaiaren bestaldean jartzen dira Argitan zentrora jotzen duten emakumeei laguntzeko. Emakumeek esateko dutena arretaz entzun ondoren, planteatzen dituzten beharrei aurre egiteko dituzten baliabideak azaltzen dizkiete.

«Asteazken arratsaldean abokatu bat dago hemen, arlo juridikoa jorratzeko, banaketak, tratu txarrak, indarkeria, salaketak...», azaldu dute. Eta zail egiten da ulertzea erakundeek beren gain hartzen ez duten arreta hori emakumeen herri ekimen baten esku egotea 20 urte luzez.

Barakaldoko San Juan kaleko 26. zenbakian Udalak utzi dien gunearen beraren tamaina ere bada adierazgarria. Institutuzioen diskurtso hutsalen aurrean, baina, lokal txiki-txiki hori nahikoa izan da milaka ema-



Karmele Andres Argitaneko kidea da zentroaren arreta zerbitzuan aritzen diren militanteetako bat.
Luis JAUREGIALTZO | ARGAZKI PRESS

kumeri laguntza emateko. «Hona datozen emakume gehienak errekurtsio gutxikoak dira, baina baliabideak dituzten emakume asko ere badatoz, beste lekuri ez dutelako», nabarmendu dute, errealitate gordinaz azalaraziz.

ITXURA BATEAN ASKO, PRAKTIKAN...

Bizkaiko Diputazioaren Baliabideen Maparen arabera, Barakaldok badauka aholkularitza juridikoa emateko zerbitzua, baita arreta psikologikokoa ere. Baina, praktikan, korapilatsua da bidea. Ematen duten aholkularitza juridikoa jasotzeko telefono batera deitu behar da, eta bidea ez da erraza aholkatuko zaituen abokatu batekin hitz egitera heltzeko.

«Eta arreta psikologikoan instituzioek zer egiten dute? Programak». Ondo daude, onartzen dutenez, baina programa horiek ez dira finkoak, gehienak aldi baterako dira, hilabete bakarrerako kasu askotan, eta gero desagertu egiten dira; aldiz, emakumeen arazoak, ez. «Osakidetzak bere gain hartu beharko luke arlo hau, hori da gure aldarrikapena», zehaztu dute. Diotenez, eskualdeko osasun zentro as-

kotan lortzen ari dira psikiatriako zerbitzuaz gain emakumeentzako arreta psikologikoa izatea, gizarte-langileak... Aldiz, askotan, Argitanera bideratzen dituzte emakumeak, ez direlako iristen.

Nahiko kaotikoa da berez sare publikoaren arreta maila, zentro batean bai eta ondokotan ez, eta gerta daiteke, diotenez, denbora baterako profesional bat kontratatzea eta gero profesionalak kontratatzeari uztea. «Diru murrizketak daudelako baliabideak kentzen hasten direnean, desagertzen den lehen baliabidea arreta psikologikoa da», salatu dute. Arlo horretan osasun publikoak duen politika orokorra honakoa da: «emakume asko dira, beraz, hobe

«Berri-Otxoak bezalako kolektiboekin irteten gara kalera salaketa lana egitera. Indarkeria egoerak jasaten ari diren emakumeei ere ukatzen dizkiete laguntzak!»

«Arreta psikologikoa ezinbestekoa da, baina arlo publikoan murrizketak daudenean desagertzen den lehena da. Zerbitzu hori behar duten emakumeen zerrenda luzeak ditugu»

medikatzeari lasai gera daitezen etxean, baliama hartuta».

Komentatu dutenez, osasun publikoa profesionalak arlo honetan hezten hasi da, baina bide luzea dago egiteko. Medikuari dibortziazten ari dela esaten dion emakumea lasaigarri batekin irteten daiteke kontsultatik. «Mediku batzuek bai, baina orokorrean ez dituzte arazook behar bezala artatzen, eta emakumeen aldetik oraindik tabuak ere badaude medikuaren aurrean», diote.

Kontatu dutenez, Argitan zentroko psikologoak orientatzaile lana egiten du. «Ez dugu terapia egiten ez daukagulako astirik eta ez dugulako nahi, hori instituzioek egin beharko lukete», aipatu du Karmele Andresek. Zentroan gehienez bizpahiru hitzordu eskaintzen dituzte, «zer gertatzen den jakin, emakumeak dituen beharrrak identifikatu eta horien arabera emakumea eskura dituen baliabide publikoetara bideratzeko».

ZERRENDALUZZEA

«Guk jarraitzen dugu nota hartzen, izenak apuntatzen, eta beti ikusten dugu arreta psikologikoa ezinbestekoa dela; umiliazioak lanean, jazarpen egoerak, familia barruko indarkeria, banatu eta senarrak etxean jarraitzea...», askotariko egoerak ematen dira, nabarmentzen dutenez.

Barakaldoko zentroaren zutabeetako bat informazioa da, eta informazio hori etxe guztietara heltzea ezinbestekoa da. Hori da, beraien iritziz, instituzioek askotan ulertzen ez dutena. Zentroan postontzietako banaketaren sistema mantentzen dute, ahalik eta emakume gehienetara heltzeko. Etxe guztietara heltzen da Argitanen informazioa, «eta



OSTIRALETAN «GAINEZKA», LAN MUNDURA DEDIKATUTA

Argitanek ikusten duena kontatzen du eta ikusten duen horren arabera zehazten ditu bere aldarrikapenak. Bada, lan munduan ikusten ari direna kezkatzeko arrazoi dute, baita diru-sarrerak bermatzeko errenta bezalako prestazioetara heltzeko emakumeek aurkitzen dituzten zailtasunak. Hasteko, instituzioek eurek egin beharko luketen informazio eta aholkularitza lana emakume boluntario batzuen esku dagoela gogoratzen dute. Hain da handia lan pilaketa, ostiralero abokatu bat horretara dedikatzea erabaki zutela. Lanez gainezka daude. Osasun arloan, arreta psikologikoa eremu publikoan ematearen beharra aldarrikatzen du Argitanek. Aldizkako azterketa ginekologikoen defentsan ere ibilbide luzea egin du desagertu zirenetik. Urteetan mobilizazioak bultzatu dituzte erakunde guztiek aholkatzen duten prebentzioaren izenean. Umetoki-minbizia prebenitzeko programa iragarri du Lakuako Osasun Sailak; Argitanen indarrean noiz jarriko den zain daude, emakume denek ez dute-eta osasungintza pribatura jotzeko aukera.

funtsezkoa da» Andresen esanetan. Nabarmentzen duenez, hori bada instituzioek egiten ez duten ahalegina, eta ez dute egiten ez gizarte-prestazioak azaltzeko ezta bestelako gizabaliabideak azaltzeko ere.

Andresek gaineratu duenez, aurtun Barakaldoko Udalaren esku dagoen autodefentsa feminista tailerrarekin ikusi dute horrelako zerbait. «Guk antolatzen ez dugun lehen urtea da, eta ez dira publizitatea egiten ari. Zelan jakingo dute emakumeek autodefentsa tailer bat dagoela? Zelan emango dute izena horren publizitate-rik egiten ez bada? Instituzioak erakunde itxiak dira eta gerrri gutxi dute mugimendu feministak kaleak egin dezakeenaren ondoan», aipatu du.

«Gure esperientziak esaten digu horrelako tailerrak oso interesanteak direla belaunaldi ezberdinetako kideak elkartzen direnean. Baina bi antolatu dira eta bat emakume arloak antolatu du eta bestea gazteria arloak. Gure ikuspun-

tutik begiratuta, hanka sartze bat da», diote. Ez dute ulertzen, era berean, parte hartzeko aukera Barakaldoko emakumei soilik ematea.

Horren harira, Andresek aipatu du egiaztatu dutela Aholku Etxea erakundeak heltzen ez diren eremuetara heltzen dela. «Gure mahai honek ez gaitu emakumeengandik urruntzen, berdintasun plano batean aritzen gara. Hemen argi esaten diegu ez diegula arazoa konponduko, ez diegula ezer lortuko: 'zuk zeuk lant du behar duzu aurrerantzekoa, gogorra da, hemen esango dizugu zeintzuk paper bete behar dituzun eta lagunduko dizugu betetzen behar baduzu, baina zuk joan behar duzu Lanbidera eta zuk egin behar duzu eskaera eta salaketa'».

Karmele, Susan, Aintzane, Cristina, Sara, Iris... Argitanen aterkia zabalik mantendu duten emakumeek ongi dakite azaroak 25 egun betetzen dituen bakoitzean kanpoan emakumeek zer giro duten.

Argitanek antolatutako autodefentsa feministako ikastaro bateko artxiboko irudia.
Raul BOGAJO | ARGAZKI PRESS



Informazioa, Argitan zentroan. Luis JAUREGIALTZO | ARGAZKI PRESS